ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko otsailaren 7a, ostirala • 15 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AMURRIOKO UDALA

**Behin betiko onartzea Amurrioko Elexondo kaleko 18. eta 20. zenbakietan 7 etxebizitza eraikitzeko 2 eraikin birgaitzeko xehetasun-azterlana. 201902S455 espedientea**

Udalbatzak 2020ko urtarrilaren 29an hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen Amurrioko Elexondo kaleko 18. eta 20. zenbakietan 7 etxebizitza egiteko 2 eraikin birgaitzeko xehetasun-azterlana, Construcciones Bigandi, SLren ekimenez izapidetutakoa.

Horren berri ematen da orokorrean, eta ohartarazten da ebazpen horren aurka, zeina behin betikoa baita administrazio-bidean, errekurtso hauek jarri ahal izango dituela:

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian (Gasteiz Hiribidea 18, Justizia Jauregia), bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aukeran (guztiz borondatezkoa) eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabe bateko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Berraztertze-errekurtsoa jarri ondoren hilabete igarotzen bada ebazpenik jakinarazi gabe, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertu beharko da, eta, ustezko ezespen horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, sei hilabeteko epean, birjarpena ezetsitzat jo den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Hala ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso edo akzio erabil dezake.

Amurrio, 2020ko urtarrilaren 29a

*Alkatea*
*MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.02.07 06:35:15 Z